

6. ORDENANTZA FISKALA

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA EKINTZA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua.-

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzen du zergagaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.



2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

- a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraispen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.
- c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzaileak edo kontratistak.

5. artikulua.-

Tasak ordaintzera behartuta daude:

- a) partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.
- b) partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6. artikulua.-

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua-

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. OINARRI EZARGARRIA



8. artikulua.-

Oinarri ezargarria zerbitzua gauzaten den unitate bakoitzak eratzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua-

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua-

1.- Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua.-

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.



X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betikoz. 2015eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.



Bilera eguna: 2013eko urriaren 31a

ERANSKINA.


AUTOTAXI ETA ALOKAIRUKO GAINERAKO IBILGALUEN BAIMEN ADMINISTRATIBOKO LIZENTZIAK EMATEA

	Euro
A) Lizentzia ematea, igortzea eta erregistratzea. Lizentzia bakoitzeko: 1.- A motakoak 2.- B motakoak 3.- C motakoak	 100,28 123,18 125,82
B) Ibilgailuak ordezkatzeari: 1.- A motakoak 2.- B motakoak 3.- C motakoak	 24,52 30,73 37,04
C) Lizentzia eskualdatzea: 1.- Lizentzia eskualdatze bakoitzagatik 2.- Lizentzien eskualdaketa (mortis causa, 1. graduako senitartekoei).	 2.505,74 100,00

Tarifa aplikatzeko arauak.

1.- Tasa honena ordaindu beharra lizentzia emateko unean berean esijitu daiteke.

2.- Automobil arinen bidezko Garraio Zerbitzu Hirikoa, nahiz Hiriartekoa arautzeko Araudi nazionalen izen bera dutenak dira A, B eta C motatakoak.



LURZORUARI BURUZKO LEGEAREN 178. ARTIKULUAK ESKATZEN DITUEN LIZENTZIAK EMATEA ETA HIRIGINTZA ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEA.

Eraikuntza edo instalazioko lizentziak: **Euro**

- Obra txikia, bi baldintza hauek dituen:	
a) Egitura ez ikutzea	
b) 12.020 euro baino gutxiagoko aurrekontua	10,23
- Dauden etxeak berritu eta egokitzeko lanak	
▪ 60.000 euro arteko aurrekontua	78,04
▪ 60.001etik 150.000etara	120,07
▪ 150.000 euro baino gehiago	240,12
- Eraikuntza berriko lanak	
▪ 500.000 euro arteko aurrekontua	720,38
▪ 500.000 eurotik 2.000.000 euro arteko aurrekontuko etxea	1.200,61
▪ 2.000.000 eurotik 5.000.000 euro arteko aurrekontuko etxea	2.401,26
▪ 5.000.000 eurotik 10.000.000 euro arteko aurrekontuko etxea	3.601,87
▪ 10.000.000 euro baino gehiagoko aurrekontua	6.003,12
- Lurrak mugitzea	76,91
- Lehenengoz okupatzeko baimena	1.152,19
- Urbanizazio kuotak kobratzea	1.537,19
- Konpentsazio Batzordearen mesederako desjabeketarako espedientea	2.304,27
- Exekuzio aginduak (L.L. 181 art.)	
Obra txikiak	247,57
Egitura obrak:	
< 12.000,- euro	537,64
> 12.000,- euro	1.612,90
IGOKA bidezko tramitazioa behar duten erabilerarako baimenak	923,26

Tarifa aplikatzeko arauak.

1.- Tasa honena ordaindu beharra lizentzia emateko unean berean edota lizentzia ordaintzea dagokionak eraginda Udalak hirigintza espedienteak, nahiz jarduketak onartzen dituen unean esijitu daiteke.



ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO LIZENTIZAK EMATEA

	Euro
- Ezeren kalte edo endredorik sortzen ez duten establezimenduak	461,61
- I.G.O.K.A. arauak bete behar dituenak	1.384,90
- Titularra aldatzea. Establezimendu ez kaltegarriak eta IGOKAra egokitu beharrik ez duten establezimenduak.....	208,80
I.G.O.K.A. arauak bete behar dituenak bada,.....	900,47
- Aurrezki kutxak eta Bankoak	8.686,10
- Irabazi-asmorik gabeko jardueri dagozkien hilabete bat baino gutxiagoko denboraldiko baimenak.	Salbuetsita

Tarifa aplikatzeko irizpideak.

Negoioa I.G.O.K.A. arauetara egokitua daukanak ez dauka tasa horrenik ordaindu beharrik kalifikazio hori lortu eta ondorengo bost urteetan obra edo instalazioren bat egiten badu espediente hori tramitatu beharrekoa. Jakina, lokala bera eta jarduera ere bera baldin bada.

**UDAL HILERRIKO ZERBITZUAK**

	Euro	
<i>Kontzeptua</i>	<i>Laneguna</i>	<i>Jaieguna</i>
1.- Hilobiratzeko lana	433,30	515,84
2.- Panteoian hilobiratzeko lana	330,14	412,68
3.- Errautsen lurperatzea (hilobia)	263,90	----
4.- Errautsen lorperatzea (panteoia)	203,00	---
5.- -Borondatez hobitik ateratzea* (panteoia eta hilobia)	165,06	----
6.- Horma hezurtegia	137,56	----
7.- Panteoia egiteko terrenoa ematea (50 urte)		4.337,24
8.-Gorpuzkin kutxak		27,10
9.- Izena aldatzeko tramitazioa		59,53
10.- Hilerria mantentzeko (hilobia/urteko)		17,00
11.- Hilerri mantentzeko (panteoi/urteko)		34,00
12.- Ehorketak eta desehorzketak hilobietan		82,51

* Eskaera interesatuak egiten duenean, borondatezkoa dela ulertuko da.

- Aurreikusitako gabeko lan bat egiten denean, horren kostua onuradunari kenduko zaio



ZABORRAK BILDU ETA EZABATZEA

	Euro / urteko
- Etxebizitza partikular hutsa	74,13
- Etxebizitza partikular betea	92,66
- 4 langile baino gutxiagoko denda eta establezimenduak, baita industria txikia ere	199,86
- 4 edo langile gehiagoko denda eta establezimenduak	328,31
- Janari-denda eta bazkari gabeko tabernak	272,66
- 5 langile baino gutxiagoko bazkariak emateko taberna (ogitartekoak, plater konbinatuak, pintxoak eta abar) eta jatetxeak	446,02
- 5 langile baino gehiagoko jatetxeak eta 3 langile baino gehiagoko Janari-dendak	1.238,86
- 10 langile baino gehiagoko industriak. Udal Administrazioarekin hitzartzeko	
- Udalari eskatutako zerbitzu bereziak. Udal Administrazioarekin hitzartzeko	
- Kultura eta Kirol Elkarteak (Gastronomikoak)	446,02
- Pubak	446,02
- PAGOSA	3.279,07
- EROSKI	10.399,26
- Profesionalen edo kidekoen bulegoak	135,72

Tarifa aplikatzeko irizpideak.

- Kuota urtekoa eta zatiezina izango da, etxebizitzaren kasuan. Gainerako kasuetan, urtean zehar izan diren jabeen artean hilabeteka proportzionalki banatu.
- Etxebizitzaren nahiz hutsik dauden lokalen jabeak edo erabiltzaileak ekainaren 30a baino lehen aldatuz gero, urte horretako erroldan sartuko dira, eta haiei kitatuko zaie tasa. Egun horretatik aurrera egindako aldaketak hurrengo urteko erroldan sartu eta handik aurrera hartuko dira kontuan.
- Etxean edo dena delakoan bizi izaten egotea hartzeko nahikoa izango da Biztanleen Erroldan azaltzea; betiere bizilagunak dagozkion betebeharrak ez bete eta erroldan ageri ez baina beste moduren batera ageri edo jakiten ez bada.
- Hutsik dauden lokal komertzialek eta etxebizitza hutsek igoal hartuko dira.
- Garajeek ez dute ordaindu beharrik izango.
- Trasteroek ere ez.
- Lehenbiziko okupazioa egin eta kontratistari saldu gabe gelditzen zaion etxebizitzak ere ez du ordaindu beharrik izango aurreneko urtean.
- Establezimendu batean eskuarki lan egiten duena langiletzat hartuko da, berdin dio nagusi ala soldatapeko izan.
- Udalak badauka bidea etxe batean bizi diren bizilagun guztiei batera kitatzeko zerbitzu honen tasa.
- Autokonpostajea egiten dutenek zaborren tasan %30eko hobaria izango dute.



MATERIALAK ALKILATZEA

Mahuka 45 m. ...	1,79 eurok /m.l./eguna
Sute-ahoak eta anezkak	17,72 eurok /eguna
<u>JAIETAKO MATERIALA ERRENTAN EMATEKO</u>	Eurok
Hesiak (Goieritik kanpo)	4,84
Hesiak (Goierri barruan)	2,45
Mahaiak	5,75
Periko mahaiak	4,70
Aulkiak	0,79
Hautsitako aulki bakoitzagatik	14,13
Periko eserlekuak	5,75
Saltokia(Goieritik kanpo)	21,39
Saltokia (Goierri barrua)	14,26
Fruitu saltokia (metro linealagatik)	7,13
Saltoki berriak (3 x 3 mt.)	35,66
Kaiolak	1,75
Danborrak	5,75
Danborraren adabaki-haustura	17,11
Kupelak	7,13
Txozna	172,74
Txoznas txikiak (gaztak)	69,11
Karpa m ² / erabilitako eguna (*)	1,39
Karpa berria 4x3,5/ erabilitako eguna (*) eta 600 euroko bermea	25,37
Oholtza 8 x 5	345,46
Oholtza 3 x 5	172,74
Oholtza 10 X 8	690,96
Sukalde haundia	57,59
Sukalde txikia	17,25
Bide-seinaleak	5,75




OHARRA: Tolosa, Zumarraga, Urretxu, Lepazpia eta Beasaingo Udalak kanpoan geratzen dira, udal horiek ere materiala uzten digutekako, karpa izan ezik, horretan Tolosako udalak izango du salbuespen bakarra.

Tolosa eta Zumarraga artean egingo diren garraio-lanengatik 100 euro kobratuko dira (gidariaren gastuak barne). Langile gehiago baldin badoaz hortik kanpo kobratuko da.

(*) – 2 egun deskontatuko dira (muntaketa egun bat eta kentzeko best bat, beti ere erabilera egunekin bat egiten ez badute)

- Erabilera aste betez luzatuz gero, hiru egunez erabiliko balute bezala kobratuko da.



AGIRIAK EMATEA.

Konpultsatzea	Lehenengo 5 orriak0,00 euro / orria hurrengoak0,15 euro/ orria
Informazio kartografikoa	8,91 euro/diskete edo dagoen kartografiako orri bakoitza.



ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO ARAUBIDEAREN 50/1999 LEGEAREN 3. ARTIKULUAK ESKATZEN DUEN BAIMENA EMATEKO JARDUERA.

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko baimena eta Aroslitsial ozam daitezkeen animalien erregistroan izena eman	29,17 euro
Baimena .	19,89euro

Arriskutzua izan daitekeen txakurra edukitzeko baimena emateko garaian, eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak Erregistroan izen-emateko txartela bidaltzeko unean tasa hau ordaintzeko betebeharra eskatuko da.

Halaber, baimena berritzeko garaian ere eskatuko da.



TELEASISTENTZIA ZERBITZUA

Teleasistentzia aparatua hornitzea	85,81 euros
Aparatua mantentzea	91,42 euros
Ordezko elementua	4,19 euros
Ordezko elementua mantentzea	13,97 euros

Tarifa aplikatzeko irizpideak

Zerbitzuaren onuradunek, beraien egoera ekonomikoaren arabera, hobarrio hauek izango dituzte:

URTEKO ERRENTA PER KAPITA (2006.urtea)	HOBARIA
6.332,62 € arte	%90
6.332,62tik - 9.498,93 €ra	%75
9.498,93tik - 12.665,24 €ra	%50
12.665,24tik - 15.831,55 €ra	%25
15.831,55 € baino gahiago	%0

Urteko per kapita errenta teleasistentzia zerbitzua erregulatzen duen Erregelamenduak ezartzen duen eran kalkulatu da.

O. E.
ALKATEA,

IDAZKARIA,



